


## Konposta egin tontorra teknikaren bitartez

Uda bukaeran, udaberri-udako laboreek beraien zikloa amaitzen dute: kuitxoak, lekak, tomateak, piperrak, letxugak, patatak... Baratzea hustu ahala, barazkien hondarrak pilatzen goaz konpostaguneko kutxa batean. Haiek konpost bihurtzeko beste askotan bezala, naturan oinarritzen gara. Izan ere, basoan jausten den edozein hosto, hiltzen den edozein landare edo animalia, bertan gelditzen da eta mikro- eta makro-organismoek esker, usteltzen da, bere elikagai guztiak berriz lurrera bueltatuz. Modu horretan, ez da naturan ezer galtzen eta zikloa ixten da.

Prozesu natural honetan oinarritzen gara, tontor teknikaren bitartez, baratzetan sortutako hondarrak konpost bihurtzen ditugunean. Nola egin prozesua?

1. Dagokion kutxan hondarrak pilatzen joango gara, betiere, lurrik gabe eta 10 cm-ko zatitan txikituta, 120 cm-ko meta egin arte. Behin altuera horretara iristean, tontorra egingo dugu beste kutxa batean, hurrengo pausu hauek jarraituz.
2. Tontorraren lehenengo geruza egur txikituarekin eta materia lehorrekin prestatzen da. Gehienez 160 x 160 cm zabaleran eta 20 cm altueran.
3. Gaienez konpost helduko 5 cm-ko kapa bat gehitzen da.
4. Materia hezea eta lehorreko 20 cm-ko geruzekin hojaldre moduko tontorra joango gara osatzen. Piramide forma joango da hartzen.
5. Azken kapa, goikoa, lastoarekin errematatuko dugu. Tontorra 150 cm baino baxuagoa izango da. Kontuz! Materiala oso lehorra badago, metatzen goazen heinean bustitzen ere joango gara.
6. Tontorra egin dagoenean, konpostatze prozesua aktibatzen asun edo zolda belar-ura edo simaur-ura botako diogu. Kea eta beroa ateratzea, seinale ona da.
7. Lehenengo iraulketa egingo dugu tenperatura 60º-etara jaistean (4-8 aste pasata).
8. 15 egunez behin 2-3 aldiz irauliko dugu meta.
9. 6-9 hilabetetan konposta egin edukiko dugu.



## Producir compost mediante la técnica del montón

Al final del verano, los cultivos de primavera-verano terminan sus ciclos: calabacines, vainas, tomates, pimientos, lechugas, patatas... A medida que vaciamos las huertas vamos apilando los restos en uno de los cajones de las composteras. Para convertir estos restos en compost, nos inspiramos una vez más en la naturaleza. De hecho, en el bosque, cualquier hoja que cae, planta o animal que muere, se queda in situ, y con la ayuda de los micro y macroorganismos se va descomponiendo, devolviendo todos sus nutrientes al suelo que los alimentó. De este modo, en la naturaleza no se pierde nada y se cierra el ciclo.

Nos basamos en este proceso natural cuando convertimos en compost los restos generados en la huerta mediante la técnica del montón. Pero, ¿cómo se hace este proceso?:

1. Iremos depositando los restos orgánicos en el cajón correspondiente, libres de tierra y troceados en pedazos de 10 cm, hasta alcanzar un montón de 120 cm de alto. Cuando se alcanza esa altura, se debe hacer el montón de compostaje en otro cajón, siguiendo estos pasos.
2. Se prepara una primera capa de estructurante con madera triturada y material seco, de no más de 160 x 160 cm de superficie y 20 cm de alto.
3. Se coloca encima una capa de compost maduro de aproximadamente 5 cm de alto.
4. Se va haciendo el montón alternando capas de materia húmeda y seca de aproximadamente 20 cm de espesor cada una, a modo de hojaldre. El montón va cogiendo una forma piramidal.
5. La última capa, la superior, se rematará con paja. La altura máxima del montón no debe superar los 150 cm. ¡Cuidado! Si la materia está muy seca, la regamos a medida que la apilamos.
6. Hecho el montón, para activar el compostaje se va regando con caldo de ortiga, consuelda o lixiviado de estiércol. Si desprende humo y calor, es buena señal.
7. Se realiza el primer volteo, cuando la temperatura desciende a 60°C (tras 4-8 semanas).
8. Se voltea 2-3 veces el montón cada 15 días.
9. En 6-9 meses tendremos hecho el compost.

